



Zuria Arzua SOS-eko kideak oso beharrezkoa den artikulu bat idatzi du, Vic-eko egoeraren harian eta immigrazio irregularrari buruz politikarien mezuak kritikatu. Orain arte Deia eta Diario de Noticias de Gipuzkoa argitaratu dute. Hona hemen euskerazko bertsioa:

PAPERIK GABEKOEN GAINEKO ERRUDUNTASUN PRESUNTZIOA – ZURIA ARZUA

Berrero ere, egoera administratibo irregularran dauden pertsonak – paperik gabekoak- eskuindar indarren diskurtsoen objektu gisa jartzen ari da. Horrela, gizatasuna kentzen zaie, eskubiderik izango ez balute bezela, ahaztuz gizaki bakarrak direla, amets, beldur eta itxaropen propioekin, eta “gainontzeko” hiritarrentzat mehatxu gisa kokatzen dira. Rajoy: “(atzerritartasun) legea aldatu beharra dago, hiritarrei arazo gehiago ez sorrarazteko” (EL PAIS 2010/I/17). Nola antzatesi hiritar osotzat egoera hortan aurkitzen den pertsona? Argi dago PPko presidentearantz aintzatespen hori ezin dela eman. Berrero ere, “gu” eta “euren” arteko banaketa nabarmentzen da: eskubideak dituztenen eta eskubiderik ez dutenen artekoa.

PSOEren gobernuak Atzerritartasun Legearen enegarren erreforma onartu berri du, atzerakoia, zeinaren bitartez, beste zenbait gauzen artean, egoera irregularran daudenei 60 eguneko askatasun gabetze isunak ezarri ahalko zaizkien. Gogoratu dezagun deliturik ez dagoela medio, arauhuste administratiboa baizik.

Eskubide ezberdintasunaren instituzionalizazioak aurrera darrai. Diskriminazioa mantentzen da, horixe baietz. Diskriminazio hori baimendu eta onartzen duen gizartean eta sistema politikoan bizi gara, historian eman diren egoera lotsagarrietaz izutzen garen bitartean: segregazio raziala, emakumeon eskubide ukapena, esklabutza, judutar eta musulmanen kanporaketa, etab. Gauzak ez dira gehiegi aldatu. Eguneko gizartean astakeriak egiten dira, hementxe. Vic-en bizi diren pertsonak, hala nola Abanto-Zierbenan gertatu zen bezela (errola ukatzen zitzaizela), nahiz eta paperik ez izan, herriko bizilagunak dira eta errolatu beharra daukate. Errolatzeak osasuna, hezkuntza eta oinarriko giza zerbitzuetarako sarbidea ematen du. Irregularitasunak berez zenbatu ezinako hainbat zailtasun dakarzki, arlo ekonomiko, sozial eta lan arloan. Horrez gain, osasun eta hezkuntzarako eskubide unibertsalak ukatzen bazaizkie, euren buruen

gain jausten den opresio eta bazterketa gaindiezinak izango dira.

Hori guztia jakinda, paperik gabekoak sistemarentzat, ongizate gizartearentzat, lan arloko garaipenentzat eta hiritar segurtasunarentzat mehatxu bat direla entzuten jarraitzen dugu.

Pertsona batek ez du paperik ez izatea aukeratzeko. Harrera estatuak ezartzen dituzten harresi normatiboak kokatzen dituzte irregulartasun egoeran. Etorrinek komunean dute jaioterritik atera direla beste herrialde baten bizitza proiektu hobeko bat garatzeko, bakoitzak bere arrazoiengatik motibatua edo bultzatua. Behin hemen, etorri baino lehenago baimenik lortu ez badute (egun nekez lortu daitekeena, are gehiago Afrikatik bazatoz), aurkituko dira 3 urtetako erresidentzia jarraitua galdatuko zaiela egoera erregularrean egon ahal izateko, urtebeteko lan eskaintzaz eta demostratu beharreko finkatze sozialaz gain. Bitarte horretan, irregulartasuna, beldurra, konfidantza eza, bazterkeria, esplotazioa, gehiegikeriak, abusuak.

Inork ez du egoera horretan egon nahi, hasi gaitzen oinarritzko premisa hortatik. Pertsona hauek bertakoentzat mehatxu bat suposatu dezaketela adieratzea jasanezineko gordinkeria da, gorrotoa, gaitzespena eta arrazakeria elikatzen duena. Integrazioak "bestea"ren errekonozimendua galdatzen du, berdintasunean. Berdintasunik gabe ez da inorentzat ongizaterik egongo. Sendotasunez adierazi dezagun politika neoliberalak eta horiek aplikatzen dituzten gobernuak direla ezberdintasunaren errudunak. Ezberdintasun egoera hutsak, gizarte aurreratu eta justu baten bizi garenaren ideia zapuzten du. Ezin ahaztu gizaki guztioi berezko duintasuna, eskubide berdintasuna eta besterenduezina aurrezagutzen zaigula. Paperik gabeko pertsonak ez dira salbuespena.